

EL BECERRO DE GUIPÚZCOA, XVI. MENDEKO KODEXA

1. «Becerro» (zekor euskaraz) kontzeptu terminologikoa

Becerro (zekor) terminoaren jatorria da, antza denez, harekin identifikatzen diren liburuak zekor-larruazalarekin koadernatuta zeudela (urtebete eskas duen behi-azienda; *añojo* edo *ternero* hitzez ere ezagutzen da), sendoagoak izateko eta babestuago egoteko¹. Gaur egun, termino polisemikoa da, eta hainbat adiera ditu.

Terminoak, berez, Goi Erdi Aroan du jatorria; «Códice», «Tumbo» eta «Cartulario» («Kodex», «Zabu» eta «Kartulario») terminoekin parekatzen da. Zalantzarik gabe, ezagunena *Becerro gótico de Cardena* da, Burgosko Cardena udalerriko San Pedro Monasterioko Kartularioa; XII. mendeko Gaztelan egin zen lehenengo kartulariotzat hartzen da; bertan, 373 dokumentuetan, Monasterio horren jarduera sozioekonomiko guztia jaso zen (899. urtetik 1085era), Monasterioko dokumentu garrantzitsu guztiak sistematizatzeko eta, horrela, galdu ez daitezen babesteko.

«Becerro», halaber, Nafarroako La Oliva monasterioko Kartularioa ere bada, «*Libro Becerro*» del *Monasterio de Santa María de La Oliva* izenburuarekin argitaratu zuen 1984an José Antonio Munita Loinazek hura², eta «Cartulario», «Tumbo» eta «Becerro» terminoak parekatu egin zituen, eta honela definitu: «*recopilación unificada en forma de código mamotreto, en los cuales se recogen íntegramente documentos de diversa índole (bulas, privilegios reales, adquisiciones, etc.), copiados por la persona o entidad destinataria de los mismos, con el fin de prevenirse mejor contra el natural deterioro o fortuita desaparición de sus originales*»³.

¹ *Diccionario de Autoridades*, Real Academia de la Lengua-rena, Madril: Imprenta de Francisco del Hierro, 1726, 1. lib., Voz «Becerro» [Gredos arg. berririo editatua, 1990, Colección Biblioteca Románica Hispánica].

² MUNITA LOINAZ, José Antonio, «*Libro Becerro*» del *Monasterio de Santa María de la Oliva*. *Colección documental (1132-1500)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1984, 325. or. [Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 4].

³ *Ibidem*, p. 1.

Antzera, *Libro Becerro de las Behetrías* izenekoak (batzuek *Catastro de Behetrías* izenarekin identifikatzen zuten eta, beste batzuek, «Tumbo»⁴) XIV. mendean, Alfontso XI.a Erregearen aginduz (1340an), Gaztelako merindadeen behetriaren lekukoen deskribapena jasotzen zuen, bai eta horiek menderatzen zituzten pertsonena edo izaera, dibisak, jakiak, martiniegak edo bestelako eskubideak zituztenena ere⁵, bai eta horietan Koroari zegozkion eskubideak ere (1352an amaitu zen; ordurako, Pedro I.a errege zen)⁶.

Aro Modernoan, *Becerro* termino hori zabaldu egin zen eta, Diccionario de Autoridades de la Real Academia de la Lengua (1726koa) hiztegian agertzen den bezala, hala izendatu zen ere «*al libro que tienen las Comunidades, Cabillos Eclesiásticos de las Cathedrales y Colegiales, Ayuntamientos de Ciudades y Villas, en el que están sentados todos los actos, acuerdos, ordenanzas y establecimientos pertenecientes al gobierno y economía pública de cada Comunidad, o su jurisdicción y pertenencias*».

Gaur egungo Diccionario de la Real Academia de la Lengua hiztegiak, ordea, adiera hori murrizten du: «*libro que en las iglesias y monasterios antiguos copiaban sus privilegios para el uso manual y corriente*», y «*al libro en que algunas comunidades tienen asentadas sus pertenencias*».

2. El Becerro de Guipúzcoa Real Academia de la Historian: Vargas Ponce Funtsa

Gipuzkoaren kasu zehatzean, *Becerro* terminoa XVI. mendearen amaieran Gipuzkoako Ermandadearen edo Probintziaren dokumentazio garrantzitsuenaren bilketarako erabili izan da eta erabiltzen da.

Termino hori Donostia hiribilduko dokumentazio garrantzitsuenaren bilketarako ere erabili izan da («*Becerro de San Sebastián*» izenez ezagutzen zen⁷); hainbat eskuk egin zuten, modu anonimoan, eta gaur egun kontserbatu egiten da, XIX. mendearen hasierako kopian, Real Academia de la Historiako Artxibategi-Liburutegiko Vargas Ponces Funtsean.

⁴ *Enciclopedia de Derecho y Administración* [Aip. Fabián HERNÁNDEZ, Becerroren editorea Santanderren, 1866, I. lib., hitzaurreko XII. or.].

⁵ Adierazpena: Luis de SALAZAR Y CASTRO, *Historia de la Casa de Lara*, 1. lib., 302. or.

⁶ Azken edizioan honek ikasia: Gonzalo MARTÍNEZ DÍEZ, *Libro Becerro de las Behetrías*, Leon: 1981, 3 bol. 606, 657 eta 129 orrikoa+16 mapa [Alicanteko Unibertsitateko A. Bermúdez Zuzenbideko Historiako katedradunaren aipamenekin. *AHDE*, 52 (1982), 772-774. or.].

⁷ AYERBE IRÍBAR, M^a Rosa, El Doctor Camino en la Real Academia de la Historia: el Libro Becerro de San Sebastián (Código del s. XV) y el Inventario de papeles del Archivo del Monasterio de San Bartolomé de San Sebastián, *BEHSS*, 49 (2016), 653-680. or.

Vargas Ponces Funtsean dago, José Vargas Poncek (1760-1821) gure Pro-bintziara egin zituen bi bisitetan (1800eko maiatzaren eta 1807ko udaberriaren artean) Real Academia de la Historia biltzen joan zen dokumentazio handia.

Juan Manuel ABASCALek eta Rosario CEBRIÁNeK Vargas Poncek Errege Akademia⁸ horrekin duen loturaren inguruan egin duten azterlan osoak ia egunean-egunean erakusten digu gure lurraldean egin zuen ibilbidea, «*deseosos los amigos que tenía en la Secretaría de Marina de que saliese de Cataluña [donde se hallaba] y sabedores de que en Madrid no le quería el Valido [Godoy], le propusieron y aceptó pasar a nuestras provincias septentrionales con la comisión de registrar sus archivos y seguir el acopio de documentos para la historia naval*»; hori izan zen Real Academia de la Historia⁹ enkargatu zion azken lana.

1800. urteko uztailaren amaierarako, Vargas Ponce Donostian zegoen, ordurako, eta irailean Hiru Probintzietako artxiboak gainbegiratzeko hasi zen hiri hartan, eta Gipuzkoan geratu zen 1803ra arte; bertan, 117 artxibo bisitatu zituen, bai eta Artxibo Orokorra ere. Gure egileen inguruan hauxe esatean, «*deseando conocer a fondo este país bajo todos aspectos, no contiene pueblo, ni monte, ni río que no le debiese peculiar examen. Para su geografía, historia y economía política juntó muchos miles de documentos que se comprenden en 22 gruesísimos volúmenes*», bere lorpenen eta dokumentu nagusien garrantziaren berri sei hilez behin emanez, «*de suerte que esas partes, unidas como quiera que son racionales, forman un apreciable índice por mayor de su colección diplomática, que hoy pasa de 284 volúmenes en folio, de los cuales, pieza por pieza, tiene un índice muy circunstanciado en otros tantos volúmenes en 8^o*»¹⁰.

Eta, eginkizun horretan, Vargas Poncek funtsezko lana egin zuen; izan ere, nahiz eta jardueraren hasieran erabaki zuen lan egitea interesatzen zitzaizkion dokumentuen edukia ateraz, laster aldatu zuen lan egiteko metodoa, eta dokumentuen kopia edo transkripzio zehatza eta literala erabiltzen hasi zen, izkribu-kopiatzaileen edo tokiko eskribauen laguntzaz, «*todas caracterizadas por llevar en el ángulo superior izquierdo un breve resumen del contenido, realizado por el propio Vargas Ponce*»¹¹.

Bere eginkizunean igarotzen zihoazen hiletan zehar (12.000 erreal baino gehiago gastatu zituen bere poltsikotik eskribauetarako), gehienbat XVII. mendeko dokumentazioa kopiatzen, «*en que podría gloriarse el Ministerio de*

⁸ ABASCAL, Juan Ramón; CEBRIÁN, Rosario, *José Vargas Ponce (1760-1821) en la Real Academia de la Historia*, Madril: Real Academia de la Historia, 2010, 614. or.

⁹ *Ibidem*, 99. or.

¹⁰ *Ibidem*, 99-100. or.

¹¹ *Ibidem*, 103. or.

*Marina de tener en su archivo un depósito mucho más precioso de vejezes que ninguno de los demás»*¹², Vargas Poncek harreman pertsonalak izan zituen garaiko intelektual eta historialari batzuekin, bereziki Juan Antonio Moguel euskal-iberistarekin, Errenteriako José Ignacio Gamón apaizarekin, Peñafloordako kondearekin Lardizabal familiarekin.

1802ko ekainerako, Donostia utzi eta Tolosan finkatu zen; bertan, Probintzia Artxiboko dokumentu ugari kopiatu zituen, «*no sin quebranto de mi pecho y vista»*¹³, eta bertan hartu behar izan zuen atsedean, Arantzazura zihoala zalditik erortzean hanketako batean jasandako lesioagatik.

Donostian egonaldi laburra egin ondoren, Getariara joan zen abuztuaz; bertan, irailera arte egin zuen lan, bere artxiboaren dokumentazioaren kopia pertsonalean. Donostian beste egonaldi labur bat egin ondoren, Zumaiara eta Debara, Zarautzera eta Mutrikura joan zen, baina bertan ez zuen aurkikuntza handirik egin¹⁴.

Berriro ere Donostiara joan zen, azaroaren hasieran; bertan, eskuratuta-ko materialak antolatu zituen eta horiekin oraindik ere kontserbatzen diren serieak eratu zituen¹⁵. Denboraldi bat Errenteriako artxiboan lanean aritu zen, eta Gipuzkoako artxiboetako dokumentuak ikuskatzen amaitzeko Bergara, Eibar, Elgoibar, Orrio (urrian) eta Azkoitikoak ikusi nahi zituen (uztailetik irailera); 1803an, guztira 117 artxibo kontsultatu ondoren, bere osasunak okerrera egin zuen, nabarmen.

1803. urtearen amaieran, baimena eman zitzaion Madrilera bueltatzeko, *Historia de la Marina Españolari* buruzko azterlanarekin jarraitzeko, Arandako kondeak duela 10urte baino gehiago onetsitako planaren arabera¹⁶. Gipuzkoako lehen egonaldi horren lehen gutuna Azpeititik idatzi zuen, 1803ko abenduaren 7an.

Madrilen zegoenean, batez ere Estatuko Ministerioak gazteen hezkuntzari eta seminarioen eraikuntzari (horren bidez agindu zen Bergarako seminarioko solairu berria)¹⁷ buruz, Bidasoa ibaiaren jabetzari (Frantziarekin liskarretan)¹⁸

¹² Hala esaten dio Sans de Barutell-ek Vargas Poncei 1801eko apirilaren 7ko gutunean, Bartzelonatik idatzia [Aip. *Ibidem*, 104. or., 570 zk.].

¹³ Horrela aitortu zuen Vargas Poncek berak Tolosatik idatzitako gutunean, 1802ko maiatzaren 21ean [Ibidem, 106. or., 588 zk.].

¹⁴ *Ibidem*, 110. or.

¹⁵ *Ibidem*, 110. or.

¹⁶ *Ibidem*, 115. or.

¹⁷ Mss. RAHn 9-4230-10.

¹⁸ Mss. RAHn 9-4190-1.

buruz eta Pasaiako portuko arazoari (dokumentuen artean, baten batek 13.000 folio baino gehiago zituen) buruz eskatutako enkargu batzuk bete zituen¹⁹. Gainera, beste azterlan garrantzitsu batzuk egin zituen, Hondarribiko berrezarpenari eta 1701etik 1800era bitarteko Gipuzkoako *demografía* garrantzitsuari buruzkoa²⁰.

Juan Sebastián Elcano, Colón edo Magallanesi buruzko beste azterlan batzuek ere Vargas Poncearen arreta erakarri zuten, eta Indiasko (Sevilla) Artxi- bo Orokorreko Ceán Bermúdez artxibozainarekin harreman zuzena izan zuen. Horretan, eta Real Academia de la Historiako Zuzendaritzan eman zituen gure egileak urte horiek.

Baina lagun eta euskal korrespondentsalen txostenak eta dokumentuak jaso bitartean (horiekin Gipuzkoako Historia idatzi nahi zuen, baina ezin izan zuen amaitu) eta langile nekaezinaren eta ageriko intelektualaren irudia finkatzen zihoan bitartean, Nobleen Seminario berriko zuzendari proposatu zutenean, erregearen onespenerarekin, Godoyk Madrildik atera zuen berriro, eta Bizkaira eta Nafarroara bidali zuen (Erregearen 1805eko maiatzaren 27ko Aginduz), Erregeari Marinako bide erreserbatutik bidalitako Pasaiari buruzko planak praktikan jartzeko aitzakiarekin²¹.

Bigarren bidaia hartara euskal lurraldeetara 1805eko ekainaren 6an irten zen. Bidaia honetan egun asko eman zituen Hondarribian; bertan, dokumentazio ugari eta askotarikoa lortu zuen. Pasaiara joan zen, mugen demarkazioa egiteko Donostia hiriarekin, eta, abuztuaren amaiera aldean, Iruñera joan zen, baina pare bat egun egin behar izan zituen Tolosan, indarberritzera.

Iruñera irailaren hasieran heldu zen, eta hiri hartan 1806ko martxora arte egon zen. Bertan, Nafarroako Comptos Artxiboa (haren aurkibide zabala egin zuen) kontsultatu zuen, dokumentu ugari eta garrantzitsuak literalki kopiatu zituen²², eta zezenketen gainean mintzatu zen.

1806ko ekainerako, bueltan zegoen Hondarribian; bertan finkatu zen, eta Pasaiaren gai berriaz arduratu zen, konpondu gabe jarraitzen zuenaz, eta batzuetan Iruñera bueltatu zen. Azkenik, 1807ko urtarrilaren 15eko Errege Aginduaren

¹⁹ *Ibidem*, 116.. or. Zirriborroa Ontzi Museoko Liburutegian kontserbatzen da, Vargas Ponce bilduma, 8. leg. 50. dok., 399-435. fol. David ZAPIRAINEk editatu zuen In *Pasaia 1805-2005. 200 años de unidad. Con el informe de José Vargas Ponce (julio de 1804) transcrito y anotado por Juan Carlos Mora Afán*, Pasajes: 2005.

²⁰ Mss. RAHn 9-5886, Gonzalo ANESEk editatu zuen In «*José Vargas Ponce. Estudios de vitalidad y mortalidad en Guipúzcoa en el s. XVIII*», Madril: 1982.

²¹ Juan Manuel ABASCAL eta Rosario CEBRIÁN, *op. cit.*, 129. or.

²² Besteak beste, Kartulario Magnoko 250 dokumentuak, Tibaltenak (1237an hasi zen prestakuntza jasotzen) eta Puebla-karta eta foru ugari.

bidez, bere zereginean etenarazi zuten (Pasaiako auziaren epaia oraindik eman gabe), eta Madrilera itzuli zen, maiatzaren lehen hamabostaldian.

Horrela amaitu zuen Euskal Probintzietako eta Nafarroako 2. eta azken egonaldia. Garai hartan, «*había fortalecido muchas relaciones personales y había aprendido mucho sobre la historia del territorio y sobre los fueros vascos y navarros... como uno de los mejores conocedores de la historia vasca y dispuesto a escribir el nuevo Diccionario geográfico-histórico de la Provincia de Guipúzcoa*»²³.

José Vargas Poncek, beraz, bere bizitzako urte trinko batzuk Hiru Probintzietan eta Nafarroan eman zituen, baina, batez ere, Gipuzkoan. Hari eta bertako herritarrei eskaini zizkien bere lanik garrantzitsuenetako batzuk, eta bertako artxiboen antolamenduan aitzindaria izan zen; bertatik atera eta kopiatu zituen dokumentu nagusietako asko; horiek, gero, Madrilera eraman zituzten eta Real Academia de la Historian gorde, jatorrizko dokumentu batzuekin batera.

Bere dokumentuen kopiak «*son hoy insustituibles por la pérdida de algunos originales*»; bere lana Probintziako kronistak, Carmelo de Echegarayk, bermatzen du, «*la importancia de sus extractos documentales pese a la subjetividad que aflora en algunos de ellos*» dionean²⁴.

Real Academia de la Historiari emandako material horiek guztiek osatzen dute gaur egun «*Colección Vargas Ponce*»; bertako aurkibidean, hainbeste aldiz aipatutako Juan Manuel ABASCAL eta Rosario CEBRIÁNen lanaren zati handiena sartzen du (187-390. or.). Ondoren, eranskina dator (memoria, mintzaldi eta abarrekin, 391-426. or.), lagun eta korrespontsalekin trukaturako gutunen zerrenda (427-574. or.), eta lanaren aurkibideak (575-614. or.).

Funts horretatik, bereziki Gipuzkoarentzat garrantzitsuak dira 14. liburutik (9-4187) aurrerakoak, behintzat 36. liburukira arte (9-4209); bertan, sarritan herrien arabera antolatuta, lehen mailako materialak aurkitzen dira Gipuzkoako lehenaldi historikoa aztertzeko.

Baina 47. liburukian (9-4220) jasotzen da *El Becerro de Guipúzcoa* osorik.

3. Becerroari buruzko azterketak

El Becerro kopia Probintziaren kanpoko artxibo batean egotea izan da, zalantzarik gabe, oraintsura arte ezagutzera ez emateko funtsezko arrazoia.

²³ Juan Manuel ABASCAL eta Rosario CEBRIÁN, *op. cit.*, 137. or.

²⁴ *Ibidem*, 138. or., 862 zk..

Hari buruzko lehen erreferentzia José Luis Banús y Aguirrek egin zuen; Gipuzkoatik Real Academia de la Historiaren urgazle zen aldetik, bertara jo ahal izan zuen, osorik transkribatu zuen, eta lana obraren 1600 fotokopiatik gorakoekin batera entregatu zion, 6 agiritegitan, Probintziako Diputazioari, 1971n, asmoa zuela Gipuzkoako Diputazioa «*se apresuraría a editar éste –para todo auténtico amador de nuestro régimen foral– venerable código, que sin ninguna exageración puede ser calificado de “Árbol Genealógico de los Fueros de Guipúzcoa”*»²⁵. Baina ez zen hala izan, eta, arrazoiak edozein izan zirela ere, Gipuzkoako Diputazioak ez zuen lan hura editatu.

Gaia egoera horretan egonik, 1983an Eusko Ikaskuntzak *Cartulario Real de Enrique IV a la Provincia de Guipúzcoa (1454-1474)* argitaratu zuen, José Luis Orella UNZUÉren eskutik [Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 2]. 196 orrialdeetan zehar, egileak Enrique IV.aren 105 dokumentu jaso zituen, eta, horietatik, 76 *Libro Becerron* ere badaude kopiatuta.

Sarreran, José Luis Orellak hausnarketa txikia egin zuen José Vargas Ponceri buruz, Real Academia de la Historian berariaz berari eskainitako funtsa ego-teari buruz eta, bereziki, Gipuzkoako Historiari dagozkion paper-sorta batzuei buruz. *Libro Becerro* amaitzean, hauxe baieztatu zuen: «*era conocido como fuente documental unitaria y compacta por los historiadores de esta provincia, y especialmente, aunque por diversas razones, por Banús y Aguirre y Gonzalo Martínez Díez. Sin ser fuente documental de primera mano, y con las deficiencias que implica una transcripción realizada a comienzos del s. XIX, sin embargo es un fondo de conocimientos históricos muy apreciado por los investigadores*»²⁶.

Hori dela eta, *Becerro* argitaratzeko nahia adierazi zuen, «*aunque sea cercenando el amplio fondo en tomos abarcantes cada uno a los reyes castellanos que discurren desde Enrique IV a Felipe II*». Baina lehen liburukia baino ez zen argitaratu, aipatu den bezala Enrique IV.ari eskainitakoa, eta obra *Libro Becerron* jasotzen ez den Errege horren beste dokumentazio batekin osatzen da.

Bereziki interesgarria iruditzen zaigu egileak *Becerron* jasotako dokumentazioa nola erkatzen duen Zaldivia Batxilerraren bilketan (*Libro Viejo de Guipúzcoa*), 1562koan, jasotakoarekin, José Luis Orellak berak landu eta argitaratu zuen, 1989an²⁷.

²⁵ Hala esan zuen José Luis BANÚS Y AGUIRREK berak In «Documentos referentes a San Sebastián incluidos en el «Libro Becerro de Guipúzcoa»»; *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*en argitaratua, 20 (1986), 83. or.

²⁶ ORELLA UNZUÉ, José Luis, *Cartulario real de Enrique IV...*, op. cit., 4. or.

²⁷ José Luis ORELLA UNZUÉk argitaratu zuen, *Libro Viejo de Guipúzcoa, del bachiller Juan Martínez de Zaldivia* tituluarekin, In Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos (1989) 2 lib. [Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 33 eta 34].

Erkaketa horren ondoren, egileak ondorioztatu zuen bai Zaldivia Batxilerraren *Libro Viejo* bai *Libro Becerro* egiteko bi dokumentu-bilduma desberdin erabili zituztela. Eta *Libro Becerro*ren kasuan: «*una fundamental y primera que es la más amplia, y otra segunda más breve, que copia ordenadamente las cartas reales nuevamente llegadas. La primera fuente del Becerro no coincide ni con la primera fuente del Libro Viejo, ni con la suma de fuentes del Libro Viejo*»²⁸. Eta emaitza izan da «*una agrupación intencionalmente cronológica de documentos, no coincidente con las colecciones de documentación real enviadas a la Provincia y reseñadas hasta ahora como anteriores al año 1575*».

Azken batean, *Libro Becerron* onartu zuen «*un interés peculiar y específico, ya que se trata de una colección documental mucho más rica que el Libro Viejo (duplica el número de documentos reales de Enrique IV), y nos señala una pista más que hay que tener en cuenta a la hora de valorar las Ordenanzas de Guipúzcoa de 1583, cañamazo fundamental de la Recopilación Foral de Guipúzcoa de 1696*».

Cartulario de Enrique IV argitaratu ondoren José Luis de Orellak, José Luis Banús y Aguirrek, egilearen «*laboriosidad grande*» aitortuta, ikusi zuen, ordea, las «*numerosas faltas y errores*» (inprimategira eramateko estutasunagatik, esaten zuen bezala), *Addenda e Corrigenda* prestatu zuen, Eusko Ikaskuntzak argitaratzeko asmotan, «*como contribución al perfeccionamiento del volumen que supone tan valiosa aportación a nuestra bibliografía histórica*»²⁹.

Gainera *Tabla* edo *Libro Becerri* hasiera ematen dion aurkibidea prestatu zuen, eta osatu zuen *Tablan* aipatzen ez diren amaierako 50 dokumentuetatik gorako aipamenekin, eta Eusko Ikaskuntzari eman zizkion, sinetsita baitzegoen haren edizioak aberastuko zuela «*la serie de volúmenes de fuentes documentales para la historia del País que con tanto acierto viene publicando*».

Ikusita bere nahia ez zela betetzen, 1986an José Luis Banús-ek birpasatu zituen lan osotik egindako transkripzioko nederlanderako ia 1600 orriak, eta Donostiari buruzko dokumentuak hautatu zituen, argitaratzeko, «*Documentos Referentes a San Sebastián incluidos en el Libro Becerro de Guipúzcoa*» izenburuarekin, *Boletín de Estudios Históricos Sobre San Sebastián*³⁰ buletinean, Grupo Doctor Camino de Historia Donostiarra taldearenean (José Ignacio Tellechea Idígoresek zuzenduta).

Sei dokumentu hautatu zituen orduan Banúsek, zuzenean gai donostiarrekin lotutakoak bezala, *Libro Becerrotik* ateratako dokumentuen lehen argitalpe-

²⁸ *Ibidem*, 8. or.

²⁹ BANÚS Y AGUIRRE, José Luis, Documentos referentes a San Sebastián..., *op. cit.*, 83. or, 1 zk.

³⁰ BEHSS, 20 (1986) 83-105.

nean; ondoko fase baterako utzi zituen hiriarekin zuzenean lotutakoak. Baina ez dugu ikusi hori egin zenik.

1988an, beste obra berri bat gehitu zen, bi liburukitan, «*Fuentes Documentales Medievales del País Vasco*» Bildumara (13 eta 14 zk.), Eusko Ikaskuntzak, Amaya Recalde Rodríguez eta José Luis Orella Unzuéren beraren eskutik argitaratutakora.

«*Documentación real a la Provincia de Guipúzcoa. Siglo XV*» izenburuarekin, Eusko Jaurlaritzak Amaya Recalderi 1983-1984 ikasturtean emandako bekarako lanaren emaitza jaso zen (Orella irakaslearen zuzendaritzapean), Gipuzkoari buruz, probintzia edo entitate unitario gisa, udal-, probintzia- edo nazio-mailako artxibo horietan kontserbatzen zena, aipatutako «*Cartulario de Enrique IV*» osatzeko, José Luis Banúsi eskerrak emanez; izan ere, argitaratutako lanaren inguruko «*serie de puntualizaciones*» helarazi zizkion³¹.

Gipuzkoako Artxibo Orokorrean kontserbatzen den eskuz idatzitako dokumentazioa osatzeko, bekaduna Real Academia de la Historiako Vargas Ponce Funtsera joan zen eta, zehazki, 23. liburukira (Gipuzkoako Ermandadearen Ordenantzei buruzkoa) eta 47. liburukira (*Libro Becerrori* buruzkoa) jo zuen.

Libro Becerro berriro ere zen informazio lehenetsiaren iturri, XV. mendeko dokumentu-bilketa batean. 75 dokumentu zenbatzen ditugu 1. liburukian, eta 43, 2. liburukian, Kodex edo *Libro* horretatik hartuta (118 dokumentu, guztira, bi liburukietan jasotako 241etatik).

Horrela, argitara eman ziren, berriro, argitaratuta zeuden Enrique IV.aren dokumentu batzuk, Juan II.aren garaiko edo Errege Katolikoek zati handi baten (1499ra arte) dokumentu berriak; baina erabat ahaztuta zegoen Gipuzkoako Historiarentzat eta Zuzenbidearentzat lan nagusia zena, ordura arte argitaratu gabea; horren edukiaren zati handi bat 1583an eta 1691n (1696an inprimatua) egindako Foru Zuzenbidearen osteko bilketen zati intrintsekoa da.

4. *El Becerro de Guipúzcoa*. Ezaugarriak eta edukia

El Becerro de Guipúzcoa, beraz, XVI. mendean zehar idatzitako eta XIX. mendearen hasieran kopiatutako kodexa da; kopiatuta heldu zaigu guri. Gipuzkoako Probintziako dokumentu juridiko-historiko nagusien bilketa da, bolumen berean lurraldeko dokumentazio garrantzitsuena batera izateko, beharbada, hura ezagutzeko eta haren Zuzenbidearen defentsan.

³¹ RECALDE RODRÍGUEZ, Amaya; ORELLA UNZUÉ, José Luis, *Documentación real a la Provincia de Guipúzcoa. Siglo XV*, Donostia: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1988, t. I, p. I, Prologoa [Fuentes Documentales Medievales del País, Vasco, 13].

4.1. Egileak

Egilea ez da ezaguna, baina ez da zentzugabea pentsatzea Batzar Nagusien ekimena izan zela (nahiz eta ez dugun aurkitu horrelako erreferentziarik aktetan) eta Probintziako Batzarretako eta Diputazioetako edo bestelako komisionatu bateko idazkariren batek egin zuela, dela Artxibo Orokorrean gordetzen zen dokumentazioa osatzeko (Tolosako Santa Maria elizan sortua, Zumaiako Batzar Nagusiaren 1530eko erabakiaz), dela Zuzenbidearen bilketa-eginkizuna errazteko, kontuan hartuta garaiko arrakasta nagusienak honako hauek izan zirela: *El Libro Viejo de Guipúzcoa*, Juan Martínez de Zaldivia batxilerraren lana (1562)³², eta *Recopilación de Leyes y Ordenanzas de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*, Zandategui y Luis Cruzat lizentziadunarena (1583)³³.

Badakigu bilketa-lan³⁴ hori egiteko eta Probintziari buruzko dokumentu-seriea osatzeko, bi Batzar Nagusiek erabaki zutela kanpoko artxiboetan bilatzeko (zehazki, Simancasko Orokorrean), eta Gipuzkoako udal-artxiboetan ere bai, etorkizunean beren eskubideen defentsarako oinarri juridiko izan zitezten.

Era berean, badakigu 1551rako Probintziak inbentario bat zeukala «*de todos los privilejos, probisiones, ordenanças y estatutos que la dicha Provincia tienen*»³⁵, baina etengabea izan zen artxiboko inbentarioaren eguneratze-lana, XVI. eta XVII. mendeetan zehar³⁶.

Juan Martínez de Zaldivia batxilerrak 1562an aurkeztutako bilketaren ondoren (ez zen behin betikotzat onartu, bertan ikusitako hutsak edo gabeziak kontuan hartuta), 1565ean Villafrancako Batzar Nagusiak, maiatzekoan, bere eskribau leialari agindu zion egiteko «*dos o tres libros donde se asienten y trasladen, hes a saber: en el uno d'ellos todas las hordenanças confirmadas qu' esta Probin-*

³² Real Academia de la Historiako Vargas Ponce Funtsean bertan kontserbatua (23. liburukia) eta José Luis de ORELLA UNZUÉk argitaratua «Fuentes Documentales Medievales del País Vasco» Bilduman, Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos-ek argitaratzen duen bilduman, 1991n (33 eta 34. zk.).

³³ Edizioa Sebastián de INSAUSTIK prestatu zuen, José Ignacio TELLECHEA IDÍGORASen hitzurrearekin, eta Gipuzkoako Diputazioak argitaratu zuen 1983an.

³⁴ Ikus bilketa-prozesua hemen: «El proceso recopilador del derecho guipuzcoano, y la recopilación de 1696», Sarrera gisa argitaratuta edizio honetan: *Nueva Recopilación de los Fueros, Privilegios, Buenos Usos y Costumbres, Leyes y Ordenanzas de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa (1696)* Fundación Para el Estudio del Derecho Histórico y Autonómico de Vasconiak (FEDHAV) 2014an argitaratua.

³⁵ JG San Sebastián, 17-IV-1551 [AGG-GAO JD AM 4,9, fol. 17 aurrealdea 31 aurrealdea-atzealdea].

³⁶ Ikus, horren harira, gure azterlana: «El control del documento. El proceso de inventariación del Archivo de Guipúzcoa en época de los Austrias, y el inventario de 1564», *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 42 (2008-2009), 55-148

cia tiene, y en otro las no confirmadas, y en otro las probisiones y cédulas, todos ellos con sus títulos, para que todo ello ande en las Juntas d' esta Provincia»³⁷.

Eta erabaki hori berretsi egin zen azaroko hurrengoan, Azkoitikoan, eta Juan Martínez de Sarastumeri (Batzarretako eskribau leialaren tenientea) agindu zitzaion ekartzeko «*la memoria de las probisiones e cédulas que se deben recopillar e juntar para con ellas requerir al tiempo del recebimiento a los Corregidores e Capitanes Generales d' esta Provincia, para que goarden su tenor e contenimiento e no bayan contra el tenor e contenimiento de dichas probisiones e cédulas*»³⁸.

Horrela planteatzen zen, bada, errege-horniduren eta zedulen bilduma egitea (Zaldivia batxilerrak egindakoaren antzeko foru-bilduma barik), Probintziara heltzen ziren agintari zibilen eta militarren sartzeez eta lege-hausteez defendatzeko. Horrek erakusten du Probintziak errege-jatorriko dokumentazioaz egiten zuen balio handitzea (gero eta handiagoa): zedulak, hornidurak eta pribilejoak, baieztatutako ordenantzekin egin bezala.

Testuinguru honetan, gure ustez, ulertu behar da *El Becerro de Guipúzcoaren* sorrera.

1581ean Bergara hiribilduak Segurako Batzar Nagusian agindu zuenean «*ympimir las hordenanças d' esta Provincia, como las ay en el Señorío de Bizcaia, para que cada uno por sus dineros puedan comprar y tener en sus casas las dichas hordenanças*»³⁹, Probintziak ordurako *Libro Becerro* izan behar zuen, Zandategui lizentziadunak eta Luis Cruzat-ek (1583ko foru-bildumarako autore komisionatuak) 1582ko abuztuaren 20an Probintziari bidali zizkioten memoria-len arabera; horietan, Zaldivia⁴⁰ batxilerraren bilduman jasota ez zeuden eskriturak (Gipuzkoako pribilejoak, hornidurak eta ordenantzak) aipatzen dira, bertan 110 dokumentu kontabiliza daitezkeela, 1468tik 1574ra bitartean datatuak (gure Becerroaren arku kronologikoa). Honela:

1º Memorial

Escrituras que están en el ynventario del archivo y (no se) hallan en el quadero de las hordenanças de Çaldivia, las quales de an de ynbiar a San Sevastían:

- Un previllegio del Rey Don Enrique en que promete con juramento no enajenar la Provincia de la Corona Real, dada en Ocana, 13 de octubre 1468 [A n° 4]

³⁷ JG de Villafranca, 10-V-1565 [AGG-GAO JD AM 7,3, fol. 11 aurrealdea].

³⁸ JG de Azcoitia, 16-XI-1565 [AM Hondarribia, E/2/1/2, fol. 7 aurrealdea].

³⁹ JG de Segura, 23-XI-1581 [AGG-GAO JD AM 11,9, fol. 32 atzealdea.].

⁴⁰ Memorial hori hemen dago: AGG-GAO JD IM 1/11/46.

- Privilegio de la Reina Doña Juana de las armas que tiene la Provincia, en Medina del Campo, 28 de hebrero 1513 [A nº 5]
- Privilegio de los Reyes Católicos sobre el consulado de Flandes y cargar de las naos. Habla con Burgos. En Alfaro, 12 de noviembre 1495 [A nº 10]
- Asiento con el Condestable sobre los derechos del diezmo biejo, seco y de la mar, confirmado por Su Magestad en Bruselas, 14 de septiembre 1555 [B nº 16]
- Executoria para que Don Francisco de Ydiáquez ponga dos thenientes de escrivanos en el Corregimiento [B nº 18]
- Provisión para que se pregone la premática de las bodas y misas nuevas y la hagan guardar, dada en Toledo, 17 de agosto 1560 [B nº 2]
- Provisión para que no detengan los presos por los derechos. Valladolid, 12 de agosto 1558 [B nº (***)]
- Provisión y carta acordada de los derechos que an de llebar los alguaziles quando fueren a executar por la tierra. Valladolid, 3 de setiembre 1558 [B nº 25]
- Provisión para que el merino mayor y los demás \si/ antes que hizieren las execuçiones las personas en quien abían de executar pagaren luego, no hagan las execuçiones ni lleben derechos por ellas, mas de solamente del camino. Valladolid, 12 de agosto 1558 [B nº 24]
- Provisión para que en trueque de pan se llebe a Françia hierro y hazero y otras mercaderías con que no sean harmas, pólbora, munijiones y bena. Valladolid, 15 de octubre 1558 [B nº 37]
- Trelado de provisión de los derechos que an de llebar en los pasajes de Orio y otros de la Provincia, de los Reyes Cathólicos, dada en Valladolid, 22 de mayo 1484 [B nº 4]
- Provisión del Rey Don Enrrique en que manda que los malhechores persigan en Nabarra y hagan justijia de los que binieren a la Provincia de Nabarra. Madrid, 4 de agosto 1468 [B nº 44]
- Provisión de los Reyes Católicos de los derechos que an de llebar los merinos de las execuçiones. Madrid, 3 de deziembre 1494 [B nº 45]
- Provisión de los Reyes Católicos en que mandan guardar lo probeydo sobre las medidas del trigo. En Sevilla, 10 de henero 1500 [B nº 46]
- Provisión de los Reyes Católicos para que ningún Corregidor pueda arrendar el ofijio de la Merindad. En la bega de Granada, 3 de deziembre 1491 [B 4(.)]
- Provisión del Rey Don Enrrique para que los alcaldes y diputados de la Hermandad puedan seguir sus pleytos con procuradores. Dada en Olmedo, 28 de octubre 1460 [B nº 4(.)]
- Provisión de los Reyes Católicos que los prebostes y merinos de la Provincia no lleben más derechos de los contenidos en el aranzel. Dada en Valladolid, 13 de hebrero 1494 [B. nº 5(.)]

- Provisión del Rey Don Enrique que ninguno de la Provincia baya a ningún llamamiento de ningún grande ni caballero. (...) 17 de hebrero 1472 [B n^o 5(.)] //
- (fol. 1 vto.) Provisión de la Reyna Católica para que los Corregidores no lleben derechos doblados. Dada en Jaén, 18 de jullio 1489 [B n^o 57]
- Provisión de los Reyes Católicos en que mandan guardar a la Provincia sus previlegios, usos y costumbres. En Taraçona, 20 de março 1484 [B n^o 58]
- Sobrecarta del Rey Don Enrique para reformar la Hermandad de Guipúzcoa. En Sevilla, 14 de junio 1456 [B n^o 60]
- Provisión de los Reyes Católicos, confirmación de una hordenança sobre el salario que an de llebar los procuradores de Audiencia. En Sevilla, 31 de março 1500 [B n^o 62]
- Provisión de la Reyna Doña Jhoana para que los malhechores que cometieren delictos los alcaldes de la Hermandad los castiguen en los casos de la Hermandad. En Madrid, 7 de henero 1511 [B n^o 66]
- Capítulos a manera de hordenanças dadas por Don Jhoan Micael, Bicario General de Panplona. Segura, 2 de setiembre 1460 [B n^o 67]
- Aranzel del diezmo \biejo/ hecho en Villafranca, año mill y quinientos y honze. Está mandado guardarse en la de Fuenterravía de 1557. 1511. [B n^o 69]
- Provisión del Rei Don Enrique en que manda a los çircunvezinos de Guipúzcoa no acojan ningunos delinquentes ni acotados. Y si se hallaren, siendo requeridos los entreguen a la justicia de la Provincia. Dada en Abila, 24 de deziembre 1455 [B n^o 70]
- Provisión del Rey Don Enrique, confirmación de hordenança que ninguno pueda tirar con saeta en villa ni arrabal. Madrid, 4 d'agosto 1468 [B n^o 72]
- Provisión del dicho que los de la Junta conozcan en los pleitos contenidos en los capítulos de la Hermandad, sin embargo de los ofiçios que tengan en la Casa Real los tales. Segovia, 8 de junio 1470 [B n^o 73]
- Provisión del Rey Don Enrique que los parientes mayores no tengan allegados ni de su tregua en la Provincia. Madrid, 4 de agosto 1468 [B n^o 75]
- Provisión del Rey Don Enrique que los parientes mayores hagan casas llanas y no fuertes. En Segovia, 26 de jullio 1460 [B n^o 76]
- Provisión del rey Don Enrique en que da facultad para que las Juntas de la Provincia puedan proçeder contra los que hizieren escrituras falsas y hizieren deponer a testigos falsos. Segovia, 18 de março 1471 [B n^o 79]
- Provisión del Rey Don Enrique para que los alcaldes de la Hermandad conozcan contra los escrivanos reçetores y testigos falsos. Agreda, 12 de deziembre 1462 [B n^o 80]
- Provisión del Rey Don Enrique, conforma una hordenança para que la Provincia pueda proçeder contra los que fueren contra la Hermandad y su quadero. En Toledo, 27 de noviembre 1473 [B n^o 83]

- Provisión del Rey Don Enrique para echar de la Provincia todos los sospechosos a la Corona Real y a la misma Provincia. Segovia, 15 de febrero 1466 [B n° 84]

- Provisión del Rey Don Enrique, ynserta una ley para que ninguno sea llamado personalmente a la Corte sino para cosas cunplideras a su servicio. Segovia, 2 de junio 1474 [B n° 86]

- Provisión del Rey Don Enrique para que los alcaldes de la Hermandad hagan pesquisa quién da apelido y proçedan contra los tales. Olmedo, 28 de octubre 1460 [B n° 89]

